

EZAGUTU BARAKALDO

2020-21

Ezagutu Barakaldo – Bigarren Hezkuntza, bigarren hezkuntzako lehenengo mailako Barakaldoko ikasleei zuzendutako programa da. Bere helburua, udalerriko balore historiko eta naturalen ezagutzaren bitartez ikasleen kultura aberastea da.

ASTELEHENA – NATURAREN EGUNA

Asteleheneko jarduerak ingurumenaren ikerketan eta ezagueran oinarritzen dira. Basatxun, naturaren elementuak ikasten ditugu: URA, LURRA, AIREA eta EGUZKI ENERGIA. Ondoren, Errekatorra abiatu, eta Castaños erreka ekosistema aztertzen dugu. Erlazionatzen diren edukiak Biologia eta Geografia ikasgaietan Kurrikulum barruan garatzen direnak dira.

ASTEARTEA - HISTORIAREN EGUNA

Astearteko jardueren helburua Barakaldoko historia eta ondarearen alderdi batzuk ikertzea da. Erlazionatzen diren edukiak Historia eta Geografia ikasgaietan Kurrikulum barruan garatzen direnak dira. Jardunaldian zehar ikasleak sentsibilizatu nahi ditugu, euren herrian geratzen diren ondare apurrak mantentzearen eta ondo kontserbatzearen zentzuaz eta garrantziaz jabetu daitezen.

ASTEAZKENA - KULTURAREN EGUNA

Asteazkenean Barakaldok daukan eskaintza kulturala gerturatzen diegu ikasleei. Honela, eguna Gurutzetako Zentro Zibikoan hasten dugu La Basu rap abeslariak gidatutako euskarazko rap tailer batekin. Ondoren, San Bizentera joaten gara Zirkodomoan eta Halapzipo Musika eskolan saio bana egiteko.

OSTEGUNA - MEATZARITZAREN EGUNA

Jardunaldi honetan Barakaldo meatzaritzan eta industrian iragan garrantzitsua eduki duen eskualde baten parte gisa ezagutzen dugu. Horretarako, Gallartan dagoen Euskal Herriko Meatzaritza Museora joaten gara eta, ondoren, Trapagarango La Arboleda eta Larreineta auzoak bisitatzen ditugu, uneoro Barakaldorekin duten lotura gogoraraziz. Lantzen diren edukiak kasu honetan Geologia eta Historia ikasgaietan, kurrikulum barruan garatzen direnak dira.

OSTIRALA - ERREPASOA

Ostirala da talde bakoitzarekin dugun azken eguna. Horregatik, goizeko jarduera nagusia da asteko aldizkari digitala sortzea, hori baita aste osoko laburpen eta komunikazio ekintza. Egun honetan lantzen edukiak Hizkuntza (era zabal batean esanda) ikasgaien Kurrikulum barruan garatzen direnak dira.

Gainera, astean zehar egindako meteorologia behaketen eta datu-hartzeen birpasatze sakona egiten dugu eta, bestetik, zenbait alde historikotan sakontzen dugu Gorostiza auzoan dagoen “Palacio” izeneko baserriaren ezaugarriak eskalan imitatzen dituen maketa handia desmuntatuz eta berreraikiz.